

don boseo

Antzeki musikala



ALAIBATZA 2015

DON BOSCO MUSIKALA

1. OBERTURA

Carlos: Zertan ari zarete? Ez zarete enteratzen!!

Main: Betikoak dira!! Beti ametsetan!!

Magone: Utzi gu bakean!!

Margarita: Don Boscori buruzko “Rock Musikal” bat egin nahi dugu.

Carlos: Joan Boscori buruz?

Magone: Bai!! Itzela da!! Entzun zer esaten guri buruz: “Ez dakit nire gazteen gabe bizi izaten!”

Margarita: “Zuek, gazteok, zuen etorkizunaren protagonistak zarete!”

Magone: “Gazteekin gustura egoten naiz!”

Main: Izugarria da. Gustura irakurriko nioke eskua!

Magone: Ea bada! Ospa dezagun!!

Margarita: Don Boscori buruzko musikal bat egin nahi badugu, lehenbiziko kontua zera da, aktore egokia topatzea. Bera antza duen norbait, bere estiloa,...

Antonio: Ni bezalakoa, adibidez. Indartsua eta gihartsua. Ez dadila pijo bat izan!!

Ana: Ez zen ume pijo bat izan. Nekazarien familia baten jaio zen, Piemonten, Italiako iparraldean.

Carlos: Hara! Nik uste nuen amerikano tipokoa zela!

Margarita: Argia ikusi zuen ...

Carlos: Beraz, jaio zen ...

Margarita: 1815. urtean jaio zen. Bere gurasoak Frantzisko eta Margarita ziren. Hau oso ondo dakit.

Main: Eta segituan aita hil zitzaion eta umezurtz gelditu zen. (Irakurtzen:) “oraindik bi urte bete gabekoa nintzen, nire aita hil zenean. Bakarrik gogoratzen dut nire amak esan zidala ...”.

Margarita: “Joan, jada ez duzu aitarik ...”

Main: Eta Antoniok, bere anaia-ordeak, ez zion bizitzen lagatzen ... Begiz hartuta zeukan!

Antonio. Zergatik begiratzen didazue niri? Nik ba al daukat zerikusirik?

Ana: Erabaki egin behar dugu, eta azkar gainera. Joanen papera egin dezake ...

Miguel: Nik italiara pixka bat badakit!

Magone. Ni ere mutil gihartsua naiz!

Carlos: Niri espagetiak asko gustatzen zaizkit!

Antonio: Lasai denok!! Horrela ez goaz inora. Aurten zu izan zara “urteko neska” izendatua. Beraz hau proposatzen dut. Zuk aukera dezazula Joanen papera egingo duena. Ados?

Main: Ados!

Magone: Benol!

Carlos: Besterik ezin bada ...

Bera: Izan dadila saltinbankia!!

Antonio: Beti daude faboritoak eta pribilegioak. Zergatik bera bai eta ni ez?

Margarita: Pertsonaia ospetsua bihurtuko da, beraz!! Egin diezaiogun elkarrizketa bat, etorkizunerako.

Ana: Harrituta al zaude aukerarekin?

Main: Zer arrakasta edota zer meritu egin dituzu eginkizun berezi hau hartzeko?

Miguel: Zein dira zure etorkizunerako planak?

Carlos. Ikaslea ala langilea zara?

Magone: Zergatik aukeratu zaitu zu?

Bera: Nahikoa da!! Utzi iezaiozue hitz egiten.

2. ASKOREN ARTEAN BERDINA

Pista 2 .- Uno de tantos - Askoren artean berdina

Guztiok bezala bizi naiz,
askoren artean berdina,
ikasten, jolasten abila ...
Zergatik nau ni aukeratu?

Ezingo zuen, ez, topatu
inor ni baino baldarrago,
herri xumearen semea,
ni naiz nekazari pobrea ...

Carlos: Etorri, neska eta mutilak!
Entzun, aberats eta txiroak!
Istoriorik egiazkoena,
ehun kapituluz kontatua.
Belardian igarotzen du eguna,
“Itzain txikia” izenez ezaguna ...
Ikustean, denek esaten dute:
“Horra Margaritaren semea”.
Amarentzat zenbat disgustu!
Ez du ia aita ezagutu!!.
Hauxe gogoratzen du lehenik:
“Joanito, ez daukazu aitarik!”.

Antonio: Niri, entzun niri!!
Mongoliako Erregea bisitatu dut
Txina osoa dut zeharkatu
Pertiako printzeak ditut lagun
Nire ukendu zoragarriaz dut sendatu
Tartariako Kan Handia
Eta Japoniako Mikadoaren semea.
Gizateriaren onbeharrez
Aztertu ditut sakonez
Belarrak ilargi izpi betez.
Merkatuan dagoen berriena dut eskaintzen.
Naturak dituen sekretuak azaltzen.
Salomon berbera nuke harrituko
Gure mendean balitz bizituko ...

*Guztiok bezala bizi naiz,
askoren artean berdina,
ikasten, jolasten abila ...
Zergatik nau ni aukeratu?*

Soka gainean kulunkatuz,
mundua _ ari da nigan dantzan.
Guztiontzat tokia dago,

Zatozte gaur gure festara!!

Carlos: **Badaki mila bihurrikeria egiten**
Txori habiak ditu bilatzen
Erori eta hezurak puskatzen
Inguruan bere lagunak biltzen.
Oinetakoak bizkarrean dituela
Hanka hutsik doa gure umea.
Pobrearen zorigaitza da luzea.
Luzeagoa eguneroko bidea.
Igandean biltzen da lagunekin,
Feriako mago eta gezurtiekin
Saltinbankiari egin dio erronka,
Magian, korrika edo saltoka.

Antonio: **“Urbi et orbi” nahi dut adierazi:**
Mirari onak egiten dut ikasi.
Haginak kentzeko deitu beti niri.
Ezpataz, mailuaz edo behatzekin.
Ezin al duzue sinetsi?
Ezjakinok! Begira honi.
Hauts magiko hauek isuri ...
Mila gaixotasun sendatzen dut nik
Minik gabe, hauts hauekin.
Oso merke da. Ehun lira soilik
Bai, entzun niri. Ehun lira soilik!
Etorri niregana. Ez sinetsi horri,
saltinbanki ume-moko horri !!

Guztiok bezala bizi naiz,
askoren artean berdina,
ikasten, jolasten abila ...
Zergatik nau ni aukeratu?

Jolas ederra nire aurrean.
Nire bihotza zure eskuan,
Izango zaitut beti _ ondoan,
Zuri laguntzeko prest nauzu ...

Antonio: **Nik badakit ondo hau zein den ...**

Bera: **(Jendeari) Antonio ikusten al duzue? Ezagutzen al duzue? Bai.**
Honexek egingo du Joanen anaia-ordekoaren papera. Joanek esaten
edo egiten guztiarekin haserretu egiten da. Askoz handiagoa da, eta
oso langilea. Baina ... entzun!!

Antonio: **Bai, bai ... Asko hitz egin, liburu asko irakurri, ume zintzoaren aurpegia**
ipini, baina ... lana? ei? Nor joaten da behiak zaintzera? Nor makurtzen

da aitzurrean? Nor aritzen da baratzean goizetik gauera? Ni!! Bia, ni!! Eta ez naiz kekatzen. Joan, berriz, ume pijo bat bezala, denbora pasa! Saltinbanki jolasetara ihes egiten du, edota belarretan liburuak irakurtzera ... Gainera, esaten dute korrikalari profesional bati apustu bat irabazi ziola Chierin, korrika eta zuhaitz batera igotzen, baina nik ez dut sinesten!! Dena gezurra!! Giharrak? Indarra? Begira zein indartsu nagoen ni!! Eta ez dut inoiz liburu bat hartu, eta ezta hartuko ere!! Ukitu nire besoa, bai, ukitu!!

Ana: Bai, baina Joaneke dio ...

Carlos: Dio ... astoak ere ez duela irakurtzen, eta zu baino indartsuagoa dela!

Bera: Eta beti honela, xextran, haserre ... Joan azkarra zen, buru argia, bihurria, ameslaria ... Bederatzi urterekin izan zuen lehenbiziko amets handia, eta honela gogoratzen du ...

MUSIKA - BORROKALDIA

Miguel: Zer gertatu da hemen?

Magone: Zer portaera izan dugu?

Main: Joan Boscori buruzko antzerki bat egiten ari ginen eta gure portaera arraroa izan da, bazirudien gu ginela ...

Ana: Otsoak ginela!!

Bera: Bai, ametsean horixe gertatu zen. Neska eta mutilak otso gaizto bihurtu ziren ...

Carlos: Eta hi izan haiz lehenbizikoa dena nahasten!

Miguel: Joan ... eta bera!!

Bera: Arrazoia duzue. Izan ere, nire pertsonaia ahaztu egiten zait! Joaneke ametsean bera ikusi zuen, irribarrez ... bera, beti lagundu ziona. Nik antzezten dudana!

Margarita: Zer egingo dugu orain?

Magone: Zuk aukeratu duzu ... Beraz, zuk bilatu behar duzu egoera honen irtenbidea!!

Bera: Itxoin. Laga iezadazue pixka bat txukuntzen gutxienez ... Ja! Begira. Ametsak jarraitu egiten du ...

3. EZ INDARREZ, MAITATUZ ...

Pista 4 .- No con golpes - Ez indarrez, maitatuz

**Berak: Joan, hola ez!
Indarrak ezingo du inoiz
Bihotza irabazi**

**Joan: Nola _ orduan
guztiei ezarri bakea
minik eman gabe?**

**Guztiek:
Egurrik ez, armarik ez,
Torturari ez, misilik ez,
Odolik ez, beldurrik ez,
Bonbarik ez, kanoirik ez!!**

**Joan: Nor zara zu?
bihotzera hitz eginez
ezina agintzen didazu?**

**Guztiek: Nor zara zu?
bihotzera hitz eginez
ezina agintzen diozu?**

**Berak:
Zure amak otoitzean ni agurtzen
txikitan irakatsi zizun ...
zuk utopia egia bihurtuz
ezinezkoa bete ezazu!**

**Guztiek:
Ez indarrez, ez indarrez,
maitatuz, maitatuz.
Ez indarrez, ez indarrez,
maitatuz, maitatuz.
(...)**

**Guztiek:
Ez indarrez, ez indarrez,
maitatuz, maitatuz.**

**Berak:
Bihotza irabaz iezaiezu,
bete itzazu pozez,**

Guztiok:
Ez indarrez, ez indarrez,
maitatuz, maitatuz.

Ostadar kolorez zerua,
usoa hegaz bakez ...

Joan: Esadazu!
Nire bizitzaren helburua
ulertu ahal dezadan!

Guztiok: Esaiozu!
Bere bizitzaren helburua
ulertu ahal dezan

Berak:
Gazteen erdian jar zaitez,
gero dena ulertuko duzu!
Gogor (e)ta _ apala _ egin zaitez,
zure Maistra ni izango nauzu!!

Guztiok:
Ez indarrez, ez indarrez,
maitatuz, maitatuz.
Ez indarrez, ez indarrez,
maitatuz, maitatuz.

Ana: Gelditu egingo da! Gelditu egingo da! Niretzat amets iritsi ezina da, ezinezko desioa! Ametsetan ari ote naiz? Neska guztien inbidia izango naiz!! Pentsatzen nuen gertatuko zela ... Zenbat ordu elkarrekin bere ametsetako belardi zoragarrian! Berak niri bere ogi zuria ematen zidan. Nire ogi beltza gehiago gustatzen omen zitzaion ...

Antonio: Eskerrak azkenean joan zen!! Moglia etxera. Neska hau ere etxe horretakoa zen ... Nekazari familia bat ... nire amaren lehengusuak ... Beno, joanen amaren lehengusuak. Hainbeste amets eta amets! Azkenean zertarako? Behiak zaintzeko!!

Ana: Igandeetan gutxi ikusten nuen. Bere lagunekin ibiltzen zen. Baina astegunetan, nire aitak jakin gabe, nik zaintzen nizkion behiak Joani, eta bera irakurtzen eta estudiatzen aritzen zer gogor ... Hain ameslaria zen!! Eta orain hemen gelditu da. Nirekin. Nik zerbait sentitzen dut berarekiko. Nola esango nioke? Ezin dut honela jarraitu. Dena azaldu behar diot ...

4. BIHOTZ GARBIA

Pista 5 .- Corazón limpio - Bihotz garbia

Ana:

**Zure ametsetan barne,
egon nahi nuke gauero.
Zure zeruan dabilen
hodeia izan nahi nuke!
Zure behatzen artean
urrezko _ eraztuna banintz!
Ogi zati hau bezala,
ni _ oso-osoa zuretzat!!**

Joan:

**Zure begi eder horietan,
- sakonki begiratzean -,
isilik niri so eginez
begi asko ikusten ditut.
Zuri ogia _ ematean,
zure eskuak ukitzean,
nire ametsei loturik,
hainbeste esku munduan ...**

Korrea:

**Mila ahots niri kantari:
Nork maitatuko gaitu beti?**

Ana:

**Ameslari, bazeneki
zein diren nire ametsak?
Orain jakin nahiko nuke,
nor dagoen zure _ ametsetan?
Zure abereak nik zaindu,
baita ere zure bihotza.
Ogi beltz hori bezala,
naizena eman nahi dizut!**

Joan:

**Bide ertzean dagoen
iturria izan nahi nuke,
egarrituentzat ura,
inor ez jabe bakarra!
Denak dira uraren jabe,
denak dabilta bidean.
Guztientzat festa handia!
Ardo eder freskagarria!**

Joan eta Ana:
Guztientzat festa handia!
Ardo eder freskagarria!
Ura bezala, garbia
izan nahi dut nik bihotza!!

Carlos: Ei, non sartu naiz ni? (...) Ikusten al duzue nik ikusten dudana?

Margarita: Ez dut uste hau liburuan idatzita dagoenik.

Magone: Erromantikoak dira benetan!!

Miguel: Ez dira ohartu ere egiten ...

Main: Oso isilean zeukaten ...

Carlos: Egingo al diegu zerbait, ea beren onera etortzen diren ...?

Guztiek: Ados, zer egingo dugu?

Carlos: Bil ditzagun jaurtigaia!

Margarita: Tori, ea esnatzen zareten!

Migel: Galaxien gerra!!

Carlos: Greenpeacekoak datoz

Magone: Beraz, indarririk ez, maitasuna baizik ...

Main: Bikote polita osatzen duzue ...

Ana: Asto batzuk zarete. Jantzia dena zikindu didazue!

Miguel: Barkatu, txantxa bat zen!

Ana: Eta begira nola utzi duzuen eszenategia!

Carlos: Zure ametsa eten dugu, ezta? Ba, arrazoia duzu. Gure mundua honelaxe dabil, oso zikin, polit hori!

Bera: Joaneke bizitzarekin amesten zuen, adiskidetasunarekin ... Mundu eder hau zoragarria zen berarentzat. Bere amak oso ondo irakatsi zion. Joan guztientzat zen. Garbia, faltsukeriarik gabea.

Antonio: Baina, zer esaten du Joaneke honi buruz?

Carlos: Ez zuen bada ezustearekin konortea galduko!!

Ana: Utzi iezaiozu bakean!! Ametsetan ariko da, beti bezala!!

5. MUNDU HAU GARBI DEZAGUN

***Pista 6 .- Vamos a limpiar el mundo -
Mundu hau garbi dezagun***

***Joan: Ez, maitasuna ez da zikina,
munduaren bizia da,
bai, dena garbitzen duena,
zuk, ama, _ esaten zenidan.***

***Margarita: Joan, Jaunak egin du mundua,
Gu maite gaituelako
Zoragarria da guztia!!***

***Batek: Begira nola dagoen
Mundua guztiz zikina!!***

***Margarita: Joan itsasoan (e)ta izarretan,
Jauna gauza ederretan,
Zoragarria da guztia!!***

***Guztiek: Mundu hau garbi dezagun,
zer nolako kiratsa!!
Mundu zikinak behar du
garbiketa orokorra!!***

***Margarita: Joan, Jaunak egin du mundua,
Gu maite gaituelako
Zoragarria da guztia!!***

***Guztiek: Mundu hau garbi dezagun,
zer nolako kiratsa!!
Mundu zikinak behar du
garbiketa orokorra!!***

Antonio: Zoragarria, benetan!! Baina gauzak oso desberdinak dira. Begira, nik nire partea hartu dut eta bera, ikusten duzue, ... Etxetik urrutira joan da!! Ikastea nahi al du? Tori ba, hogeit hamar kilometro egunero, Castoenuovora joateko. Eta gainera hanka hutsik. Gure etxean diru gutxi sartzen da ... Beno, hau hasieran izan zen. Gero Chieri hirira joan zenean, a zer nolako jendailarekin ibiltzen zen!!

Bera: Ez egin kasurik. Joanek hamabost urte zituenean, bere amak eskatu zion etxetik joateko, familiako bakea salbatzearren. Joanek bere bidea jarraitu behar zuen ...

Antonio: Eta mota guztietako gazteekin elkartzen zen: punkyak, lanbide ikasleak, gaizkileak, bera bezalako kaleko umeak ... Alferrik da disimulatzea ...

6. GELDI MUNDUA, BANOAA!!

Pista 7 .- El Aprendiz - Geldi mundua, banoa!!

Magone: Hau al da bizitza?

Hobe nuke hiltzea,

suizidatzea ...

Mundutik kanpora

jaurtitzen naute ni ...

zer egiten dut hemen?

Geldi mundua, banoa!

Lanik ez daukat,

nor naiz ni?

Geldi mundua, banoa!

Ez dut berriz hasi nahi!!

Engainatu naute,

loturik naukate,

gehiago _ ezin dut.

Gizakiak ahaztu,

nire _ izena utzi

ezkutatuta.

Geldi mundua, banoa!

Lanik ez daukat,

zaborra naiz.

Geldi mundua, banoa!

Beti berdin!

Nik ez dut berriz hasi nahi!!

Ez, ez kontatu nirekin,

Ez animorik eman,

Ez errukirik.

Irtenbiderik ez dut,

nire izarra itzali da,

bukatu da ...

***Guztiek: Begira nola dauden hor
zuen ondoan!!***

Jendea beti larri

euren arazoan!!

Magone: Geldi mundua, banoa!

**Lanik ez daukat,
nor naiz ni?
Geldi mundua, banoa!
Ez dut berriz hasi nahi!!**

**Ezin dut hola jarraitu,
gaztea izatea
kalterako da ...
Ez naiz jada gizona,
ez naiz gaztea ja.
Gizadi zikina!!**

**Guztiek: Begira nola dauden hor
zuen ondoan!!
Jendea beti larri
euren arazoan!!**

**Magone:
Geldi mundua, banoa!
Hil baino lehen jakin nahi dut
nor naizen.
Geldi mundua, banoa!
Ez dut berriz hasi nahi!!**

**Geldi mundua, banoa!
Lanik ez daukat,
zaborra naiz.
Geldi mundua, banoa!
Beti berdin!
Nik ez dut berriz hasi nahi!!**

Bera: Piemonteko gazteak egoera oso larrian zeuden, benetan. Alde batetik industriaren iraultza, bestetik Austriarekin izandako gerra ... Gazteak sakabanatuta zeuden!!

Antonio: Gazten banda armatuak ikusi ditut. Beraien makilak, labanak eta pistolak eskuetan ... Labana borroka asko izaten dira.

Ana: Joan begiak zabaltzen hasi zen, egoera zen bezala ikusi zuen. Herrixka batetik zetorren etorkina zen. Gaixotu egin zen, ahuldu, goserik, ...

Carlos: Baina, zer egin nahi zuen?

Bera: Bizi, iraun, etorkizuna prestatu ... Eskaintzen zioten edozein lan onartu behar izan zuen. Behiak zaintzeaz gain, zapata garbitzailea ere izan zen, eta errementaria, eta jostuna, errekadista, tabernako zerbitzaria, ...

Margarita: Zertan ari zara?

Carlos: Ezertan ere ez! Niri bezala gertatzen zitzaien. Ni ere izan naiz zapata garbitzailea, parabrisa garbitzailea, musuzapi saltzailea, egunkari saltzailea, mezularia, bingoko zerbitzaria, kartel jartzailea, ...

Ana: Nahikoa da!!

Carlos: Beraz, hura ere ni bezala, gauza askotan ikasle eta gutxitan maisu.

Main: Zu eta beste asko bezala!!

Bera: Ez, ez!! Arazo guztien gainetik, berak oso ondo zekien zer izan nahi zuen ...

Antonio: Bai, ametsean ikusi zen: lapurren kapitaina!!

Carlos: Ez, motel, ... astronauta!

Magone: Nola?

Ana: A ... bai!! Harrapatu dut. Beti ametsetan eta hodei artean dabilelako ...

Main: Ea zeinek esan duen!

Carlos: Edo rock kantaria. Izugarritzko martxa du gorputzean!

Bera: Ez duzue bela asmatuko ... Nahi al duzue jakin zer izango den?

Carlos: Asmakizunen jolasa egingo al dugu?

Antonio: Zer izango da Joan? Zer izango da? Hemezortzi urte ditu. Chieri hiri txikiko taberna ziztrin bateko barman ikaslea da. Eta munduko "historia handia", eta Italiako historia, beste bide batetik doaz ... Norbait izan nahi baduzu, orain Mazzini iraultzailearekin batera ibili behar duzu: hori egunkarietan irteten da. Horrela diote behintzat, nik ez baitakit irakurtzen ... "Italia gaztea" taldekoa izan behar da, eta istiluak antolatu, eta Errege familiaren aurka atentatuak egin ... Edota Garibaldi jeneralaren tropan sartu. Hori bai izango dela garrantzitsua ... Eta alkandora gorria jantzi eta hiru koloreko bandera hartu ...

Baina Joan orain, ba al dakizue? Kafeak eta txokolateak prestatzen ari da, taberna zikin batean; goizetan eskolara joaten da; arratsaldetan besteen billar joko kontuak eramaten ditu, eta gauetan eskailera baten azpiko gela ilun baten estudiatzen du ...

A! Hori bai! Ez da Mazziniren "Italia gaztea" taldean apuntatzen, baina berak gazteen talde bat sortuko du, "Alaitasunaren Elkarte" deritzana. Beraz, zer izango da Joan? Pozak egin al du inoiz iraultza garrantzitsu bat?

Bera: Nahi al duzue zer izango den esatea?

Main: Esaguzu, behingoz!

Bera: Izango da ... Apaiza izango da!!

Carlos: Eta ni Napoleon!

Bera: Bai, hauek barrez ari dira. Baina bere amak esan zion:

Margarita: Joan, gogoratu: Meza ematen hastea, sufritzen hastea da ...
"Seminarioa sei urte egin eta gero, 1841eko ekainaren 5ean, Joan Bosco apaiz ordenatua izan zen".

7. NI ALKANDORA HUTSIK

Pista 8 .- En mangas de camisa - Ni alkandora hutsik

Carlos: Gure herrian apaiz lodi bat bada.
Lo hartzen dugu bere _ hitzaldian
Hori da hitz jarioa!
Hauxe apaiza potola!!

Denek: Bai, bai, bai, bai, kolore _ arrosa!
Margarita: Ez, ez, ez, ez, hola _ ez da gauza!

Magone: Apaiz edo sakristaua bazara,
jaso jendeen agurra!
Latinez mintzo zara
(e)ta _ izango duzu fama.

Denek: Bai, bai, bai, bai, kolore _ arrosa!

Margarita: Ez, ez, ez, ez, hola _ ez da gauza!

Antonio: Gaurko apaiza izateko behar da
izan txit liberala.
Manifestaziotan,
eta hauteskundeetan!

Denek: Bai, bai, bai, bai, kolore _ arrosa!

Margarita: Ez, ez, ez, ez, hola _ ez da gauza!

Magone: Apaiz edo sakristaua bazara,
jaso jendeen agurra!
Latinez mintzo zara
(e)ta _ izango duzu fama.

Joan: Nire _ ametsean gauzak ez dira _ horrela.
Beste modu batez ikusi ditut.
Meza ematen hasteak
bere mina dakar ...
Ez naiz horrelako _ apaiza _ izango,
Ni _ alkandora _ hutsik!!

Antonio: Begira, Joan. Don Calossok, zure apaiz lagun horrek hau guztia
utzi du zuretzat. Aberatsa zara!!

Margarita: Inoiz apaiz izanik, aberatsa izatera iristen bazara, ez naiz zure
etxean sartuko.

Joan: *Aberastasun bakarrak poza,
maitasun gozo eta askea.
Hondartzako hareak zenbatu.
Nire bihotza hain handia da!!
Kaleak, tailerrak nire etxea
izango dira.*

Antonio: *Aita Santuak kardinal izendatu nahi zaitu. Sina ezazu hemen eta
ohore handiak jasoko dituzu.*

Margarita: *Hitza eman dut: nire bizitzako une guztiak gazteentzat izango dira.*

Joan: *Ohore artean ezin zintezke,
besteen artean bat izan.
Gazteek ez dute hori ulertzen.
Nik ez dut inoren ohorerik nahi.
Gertuko apaiza izango naiz
guztien artean.*

Antonio: *Garibaldiren aginduz, apaiz aberkoiek ohore asko izango dituzte.*

Mutiko batek: *Azken berriak!! Karlos Marxek esana: “Mundu guztiko
langileak, elkartu zaitezte!!”*

Margarita: *Zure politika bakarra “Aita gurea” otoitza izango da.*

Joan: *Zuk, Aita, gazteak askatzen dituzu,
niregan zure nahia egin bedi!
Umezurtzekin, gazteekin,
zure _ogia banatzean,
Beti _izango naiz gazteen laguna,
gaitzetik askatuaz,
Munduko gazteak elkar bitez,
zure maitasunean!*

Berak: *Joanek lehenbiziko meza Torinoko Asisko San Frantzisko elizan eman
zuen. Orain badakizue. Joan apaiza da jada!!*

Ana: *Orduan, ni? Nik pentsatzen nuen berak ... berak eta nik ...*

Antonio: *Ana gajoa bere printze urdinik gabe gelditu da ... Askori gertatzen zaio
... Mutiko gaixoa!! Pentsatuko duzue. Eta arrazoi osoz. Zer gertatu da
bere haurtzaroko ametsekin?
Nik, bere anaia ordeak nire etxea eta nire familia ditut, Jainkoaren
legean. Baina honek, hogeita bost urterekin, ... honek daukan familia
bakarra esker txarreko txima luze bakarrik dira. Izan ere, ametsak
amets hutsak dira.*

Berak: *Ordura arte, Joanek nekazarien pobrezia eta gosea soilik ezagutzen
zituen. Hemendik aurrera hiri handietako ertzeko auzoetako miseria*

ezagutuko du. Bere adiskidea den apaiz batek esango dio: "Etorri eta ikusi, Joan Bosco. Zabaldu begiak. Begira zure inguruan!".

Margarita: (Irakurtzen) Adin guztietako gazte asko topatu zuen. Kaleetan eta plazetan zehar ibiltzen ziren handik hona, auzoetan, jolasean, barrez, lapurretan, ...

Antonio: Borrokan? Lapurretan? Mozkorrak, drogadiktoak, prostituzioa, krimenak, ... Ez al da egia? Gazte hauek ba al dute erremediori? Gaizkileen kapitaina!! Horixe esan nahi zuen bere ametsak!

Bera: Baina egun hartan, 1841eko abenduaren 8an, Asisko San Frantzisko elizan, Joan meza emateko prestatzen ari zenean, zerbait gertatu zen sakristauaren eta kaleko gaztetxo baten artean. Ez zen izan ezer ere. Hasiera bat soilik, hazi txiki bat. Bere obra guztien hasiera baino gehiago: estilo baten hasiera, intuizio bat, ...

Carlos: Alferrok!! Alde hemendik!! Don Boscok meza eman behar du. Apaiz jaun batek ezin du zuen bezalako alferrez inguratuta egon!
Hi ez, hi etorri hona!! Hik meza lagunduko diok! Itxura ona ez duan arren!

Bartolome: Nik, ez dakit ...

Carlos: Nola ez dakiala? Gezurretan ari haiz?

Bartolome: Benetan diot. Ez dakit meza laguntzen!

Carlos: orduan, zertara etorri haiz? Lapurretara!! Apaizaren ardo gozoa edatera, ezta? Edota diru poltsa garbitzera ...

Bartolome: Ez, ez, hori ez. Nik ez dakit ezer egiten...
Nik ez dut ezer egin.
Ez naiz eskolara joan.
Ez daukat aitarik ...
Amarik ere ez ...
Ez daukat lanik ...
Ez dakit irakurtzen ...
Idazten ere ez ...

Joan: Ba al dakizu txistua jotzen?

8. BA AL DAKIZU TXISTUA JOTZEN?

Pista 9 .- ¿Sabes silbar? - Txistua jotzean

**Denek: Txistua jotzean
arnasa berritzen da,
txistua jotzean,
mintzatzen ari zara.
Txistua jotzean,
hodeiez bat eginez,
txistua jotzean,
zerua ukitzen duzu.**

**Magone: Txistua haizea da,
(e)ta haizeak darama!**

**Joan: Txistua jotzean,
pozik duzu bihotza,
txistua jotzean,
musika da mundua.**

**Denek: Txistua ez da ezer. (...)
Hitz gabeko zarata!!**

**Joan: Bai!!
Txistuaz haizea berritzen da,
denek barruan sentitzen dute,
maite duzu bizia,
maite mundua ...**

**Bai!!
Txistuaz ez dira hitzak behar,
musika da garrantzitsuena,
kantari txoriak,
guztientzat hurbil, ...
Txistua jotzen badakizu,
tantaz itsasoa _osatuz ...
Egunero sortzen da argia ...
Onartzen zaitut,
zaren bezala.**

**Denek: Txistua jotzean
arnasa berritzen da,
txistua jotzean,
mintzatzen ari zara.
Txistua jotzean,
pozik duzu bihotza,
txistua jotzean,
musika da mundua. (txistuka ...)**

**Joan: Txistua haizea da
(e)ta haizeak darama!
Txistua jotzean
zure ondoan nago,
txistua jotzean,
gu gara lagunago.**

**Denek: Bai!!
Txistuaz haizea berritzen da,
denek barruan sentitzen dute,
maite duzu bizia,
maite mundua ...**

**Bai!!
Txistuaz ez dira hitzak behar,
musika da garrantzitsuena,
kantari txoriak,
guztientzat hurbil, ...
Txistua jotzen badakizu,
tantaz itsasoa _ osatuz ...
Egunero sortzen da argia ...
Onartzen zaitut,
zaren bezala.**

**Joan: Txistua jotzean
zure ondoan nago,
txistua jotzean,
gu gara lagunago.**

**Denek: Txistua jotzean
gure ondoan dago,
txistua jotzean,
gu gara lagunago.**

ATSEDENALDIA

BIGARREN ZATIA

- Antonio: Uf! Antxintxika nator. Alde egin duzuela pentsatu dut ... Joan apaiz izatera iristean, agian pentsatu duzue historia ... bukatu dela. Eta ez. Guztiz alderantziz ... Orain sortzen zaizkio arazo larrienak. Ez naiz damutzen Joanen papera berari tokatzean!! Begira. Orain Joanen familia ez da jada kaleko ume bat ... Bere "familia" kaleko gazte ugari dira, gero eta gehiago.
- Bera: Barkatu, baina ni zu baino lehenago iritsi naiz. Niri egokitzen zait hitz egitea!
- Antonio: Ni baino lehenago? A, bai. Emakumeak lehenago!!
- Bera: Hasi zara beti bezala. Izan ere beti nesken aurka zeunden zu!
- Antonio: Ez da horregatik. Kritikoak garenok fama txarra daukagu. Zuk, ordea, irudi aholkulari ona duzu ...
- Bera: Beti errazagoa izan da oposizioan egotean ...
- Antonio: A bai? Eta zu? Zu non zaude? Nire papera zein den garbi dago. Baina zu? Ni naiz anaia ordea, etxeko ardi beltza ... Eta zu ... Nahi al duzu ikusleei galdetzea, ea zein den zure papera? Nik ez zintudan zu herrixkan ikusi, ezta Torinon ere ...
- Bera: Hala ere, paper garrantzitsua eman didate. Garrantzitsuena ... Bere ametsetan ...
- Antonio: Bere ametsetan!! Betiko kontua!! Nola ez gara, bada, oposizioan egongo ametsik ez dugunak, lorik egiten ez dugunak? ... Guk ez ditugu begiak ixten. Oso zabalik ditugu! Guk zientziaz soilik fidatzen gara, aurrerapenean, geure iritzian, ezta?
- Bera: Moztu, ja, erroilu hori!! Ez gara gutaz hitz egitera etorri! (Antoniok buruarekin baietz. Orduan Berak jendeari). Jarrai dezagun Joanekin, ados? Orain jada apaiza da, ikasten jarraitzen du eta Markesa batekin topo egingo du ...
- Antonio: Aditu al duzue? Markesa andre batekin!!
- Bera: Baroloko Markesa andrearekin, bai. Emakume honek Iraultzari eta gillotinari ihes egitea lortu zuen, eta oso ona zen. Jende ospetsu eta politiko handiekin tratatzen zuen. Bada ... emakume ospetsu honek ekimen zoragarriak sortu zituen arriskuen zeuden neskentzat. Eta emakume honek zorte handia izan zuen, apaiz gazte eta argi bat aukeratu zuenen obra hauen zuzendaritzat: Apaiz honi Don Bosco deitzen zioten. Baina, adi, badatoz eta!!

9. ALDAMIOETAKO BALETA

Pista 10 .- Ballet de los andamios - Aldamioetako baleta

Mutilak:

***Kaleko mutilak gara,
auzoko alferrak***

Neskak:

***Igo, jaitsi,
adreiluak***

Mutilak:

***Kalea eta_aldamioak
dira gure etxea.***

Neskak:

***Jaitsi, igo,
eta bizi ...***

Mutilak:

***Guztiek zaintzen gaituzte,
altura honetatik***

Neskak:

***Igo, jaitsi,
adreiluak***

Mutilak:

***Denen iritziz gu gara
munduko zaborra***

Neskak:

***Jaitsi, igo,
eta bizi ...***

Guztiak:

Aldamioetan

bizitza hau da:

igo, jaitsi,

biz(ir)ik iraun ...

amildegia

gure _aurrean ...

Zertarako egin etxeak?

Mundua gaizki egina dago

Ezin gara hemen gustura egon ...

Mutilak banaka:

Langabea naiz.

Ni terrorista.

Gaizkilea ni,

Alferra naiz ni.

**Drogazalea.
Lapurra naiz.
Parranda zale.
Umezurtza.**

(... errepikapena:

**Mutilak:
Kaleko mutilak gara,
auzoko alferrak
Neskak:
Igo, jaitsi,
adreiluak**

**Mutilak:
Kalea eta _aldamioak
dira gure etxea.
Neskak:
Jaitsi, igo,
eta bizi ...**

**Mutilak:
Guztiek zaintzen gaituzte,
altura honetatik
Neskak:
Igo, jaitsi,
adreiluak**

**Mutilak:
Denen iritziz gu gara
munduko zaborra
Neskak:
Jaitsi, igo,
eta bizi ...)**

**Neskak:
Zintzoak gara,
zintzoak beti,
aita amaren
alaba onak!
Eta txikiak gu izan arren,
agian buru arinak,
ondo _ ulertzen dugu,
hemen laguntzen digutela!
Guztiak:
Aldamioetan
Bizitza _ hau da:
amildegia
gure _ aurrean ...
Baina _ orain gauzak**

aldata dira:
Lagun bat dugu,
gure ondoan.

Orain berriro
bizirik gaude,
igo, jaitsi,
adreiluak, ...
Maite gaituen
laguna dugu!!

Mutilak:
Kaleko mutilak gara,
auzoko alferrak
Neskak:
Igo, jaitsi,
adreiluak

Mutilak:
Kalea eta aldamiok
dira gure etxea.
Neskak:
Jaitsi, igo,
eta bizi ...

Mutilak:
Guztiek zaintzen gaituzte,
altura honetatik
Neskak:
Igo, jaitsi,
adreiluak

Mutilak:
Denen iritziz gu gara
munduko zaborra
Neskak:
Jaitsi, igo,
eta bizi ...

Guztiak:
Bera iristean
bizia hasten da
igo, jaitsi,
adreiluak, ...
Aldamioak festa
bihurtzen dira. (2)

- Irakaslea: Ikusi al duzue? Hau ezin da onartu!! Begira zenbat lan egin duen gure Barolo Markesa andreak , gure babesleak!! Eta apaiz gazte eta moderno hori, mundua jango duela pentsatzen ... Gazte aldrebes horiekin hondamendira doa!! Baina, ez al duzue ikusten nola argaldu den!! Izan ere, eta konfiantzaz esaten dizuet, ez dago ondo burutik. Joan den egun baten, Markesa andreak kontatu zigun ikaratuta, ministroak esan ziola, Kartzelako zuzendariak esan ziola ... bere "kolega" horietako berrogeita hamar kanpora nahi atera zituela, txango bat egitera ... Eta lortu arte ez omen zuen etsi. Eta gainera polizia eta guardiarik gabe!! Ez dago burutik ondo!! Ezta? Zer espero daiteke honako apaiz batengandik? Horra hor, bere sotana jaso, eta hor dabil korrika eta jauzika, gazte horiekin jolasean, belardietan eta hiriko kaleetan ...
Seguru nago Markesa andreak soldata ona ordainduko ziola ... Benetan tontoa izan da! Bizitza osorako seguritatea zeukan! Diru nahikoa, osasun zerbitzuak, erretiroa, ...
Dena ziurtatuta!!! Apaiza gustura egotea espero zuen Markesak, osasuntsu, bere neska gaixoak espiritualki ondo zaintzeko ... Eta horrek, nahiago izan ditu kaleko mutiko horiek, non erori ez daukaten gaztetxo pobre horiek!! Ba seguru nago Markesak apaiza kanpora bidaliko duela!! Bai horixe!! Neu arduratuko naiz horretaz!
Kanpora bidaliko du!!
- Carlos: Eta horixe egin zuen andre pu ... jator horrek. Istorioa ulertzen hasi naiz.
- Bera: Bai. Eta Joan kalean gelditu zen. Beno lehen ere kalean zegoen. Bere gazteekin. Esan nahi dut bere amaren hitzak ulertzen hasi zela. Bere kalbarioa sufritzen hasi zen. Ehun, berrehun, hirurehun, laurehun ... gazte, Joanen bila, Joanen beharrean ... Eta Joanez ez zuen egonik, Noeren ontziko txori hark bezala ...
- Ana: Hilerri baten ondoko eliza bat.
- Main: Errotako San Martineko elizatxoa.
- Magone: Dora ibai ondoko belardiak.
- Migel: Moretta etxearen ondoko belardia.
- Bera: Eta beti gaztez inguratuta ...

10. ALFER ZIKINAK, ALDE HEMENDIK!!

Pista 11 .- Unos golfos es lo que sois!! - Alde hemendik!!

Irakasleak:

**Alfer zikinak,
Alde _ hemendik!!**

Guztiak:

**Denek diote, zaborra gara,
inork ez gaitu ondoan nahi.
Toki guztitik bota gaituzte,
Oratorioa doa alderrai.
Parrokia eta zelaietatik,
igandero _ ospa egin behar.
Txorien antzera, hegaz bagoaz,
inork ez gaitu ondoan nahi.**

Batek:

**Lore gaixoak!! Alde _ hemendik!!
Joan zaitetze!! Ez itzuli!!**

Guztiak:

**Guri gorroto, guri erruki,
beldur digute. Nora goaz?**

Beste batek:

**Ustel alaenak!! Arazo iturri!!
Alde _ egin azkar!! Ospa hemendik!!**

Guztiak:

**Guri gorroto, guri erruki,
beldur diguzue. Nora goaz?
Maite gaituen inor ez dago,
gure _ axola den lagunik ez.
Denek diote, zaborra gara,
inork ez gaitu ondoan nahi.
Txorien antzera, hegaz bagoaz,
inork ez gaitu ondoan nahi.**

Batek:

**Bakea joan da gure ondotik.
Alde _ egin azkar!! Ospa hemendik!!**

Guztiak:

**Guri gorroto, guri erruki,
beldur digute. Nora goaz?**

Antonio:

Alfer zikinak, Alde _ hemendik!!

- Antonio: Normala da, ezta? Zeinek nahi ditu gazte horiek bere etxe ondoan edo bere lursailean? Laurehun kaleko gazte, ... tximinia garbitzaileak, igeltsero aprendizak, kartzelan egondakoak, ... dena zapaltzen, zarata beldurgarrian?
- Migel: Errota etxetik bidali egin gintuzten, zaratatsuak ginelako.
- Main: Filippi belardietatik ere bai. Lehen azak eta patatak jasotzen ziren. Orain desertua da!
- Carlos: Hilerriko kaperatik ere bai, hildakoak piztuarazten genituelako!
- Antonio: Kanporatzea, urrutira bidaltzea ... Trastu guztiak hartu eta kanpora, eta laurehun aho elikatzeko ... Egia onartu beharko du: Honek ez dauka etorkizunik. Errua izan da dena. (*Giro aldaketa, datorrena agian grabatuta...*)
- Ez al duzue aditzen? Nabucco kantatzen ari dira, Verdi izeneko musikari gazte bat opera. Jendearen animoa berotzen du, Italia batuaren alde.
- Eta han? Ez al duzue entzuten? Apaiz aberkoi eta liberalen deiadarrak dira, "Gora Pio Aita Santua!!" eta beraien gotzainaren aurka daude, behar den bezala.
- Baina Joanek ez du honelako ezer aditzen. Soilik gazteen ahotsak aditzen ditu, esaten: "Goseak nago!" edota "Nire patrioiak lanetik kanpora bidali nau!" ... Camilo Cavour, gero ministro izango zenak zuzendutako "Risorgimento" egunkari ospetsuan artikulu politiko batzuk idatzi balitu sikiera! Egunkarietan irtetea ospetsua izan zaitezke! Baina ez!! Aurrez galdutako kausa baten alde lanean ari da. Porrot izugarria. Hasi aurretik galdu egin du jada!!
- Migel: Zergatik konplikatzen naiz honela?
- Ana: Dena kanpora bidaltzen naute. Inork ez nau ulertzen!!
- Magone: Porrota porrotaren gainean! Bidea nahastu al dut?
- Carlos: Nire ametsak amets hutsak al ziren?
- Main: Eginkizun hau nire indarraren gainetik dago.
- Migel: Ene Jauna! Utzi egin beharko dut!
- Magone: Eta beraiek ez dira konturatzen. Ondo pasatzea bakarrik inporta zaie!
- Margarita: Bai, errealista izango naiz! Besteek bezala egingo dut ...
- Carlos: Zailegia da. Nire ametsak ahaztuko ditut ...

11. GAZTEAK ZARETENEZ, MAITE ZAITUZTET

Pista 12 .- - Gazteak zaretenez, maite zaituztet.

Berak:

Gazteak zaretenez, maite zaituztet.

Nire bizitza _ emango nizueke.

Nire hitzak bihotzean ondo gorde:

Nire poz eta itxaropena zarete.

Joanek:

Gazteak zaretenez, maite zaituztet.

Ez dizuet ezer ere _ eskatu nahi.

Nire hitzak bihotzean ondo gorde:

Zuen ondoan nago ni alai.

Begira zer datorkidan gaur burura!

Zuekin zeru _ osoa hemen dago,

Nik ez dut zeru handiagorik itxaro,

Gazterik gabe zerurik ez dago niretzako!

Gazteak zaretenez, maite zaituztet.

Zuentzat opari neroni naiz.

Nire hitzak bihotzean ondo gorde:

Nire poz eta itxaropena zarete.

Gazteak zaretenez, maite zaituztet.

Ez dizuet ezer ere _ eskatu nahi.

Nire hitzak bihotzean ondo gorde:

Zuekin beti sentitzen alai.

Guztiek: Begira zer datorkidan gaur burura!

Zuekin zeru _ osoa hemen dago,

Nik ez dut zeru handiagorik itxaro,

Gazterik gabe zerurik ez dago niretzako!

Joanek:

Gazteak zaretenez, maite zaituztet.

Honela nahi dizuet gaur aitortu.

Nire bihotza zuen esku dago:

Zuen alde eman nahi dut nik bizia.

Guztiek:

Gazteak zaretenez, maite zaituztet.

Ez dizuet ezer ere _ eskatu nahi.

Nire hitzak bihotzean ondo gorde:

Zuen ondoan nago ni alai.

Carlos: Non sartu da?

Bera: Pinardi izena duen gizon batekin hitz egiten ari da Joan.

Carlos: A, bai! Etxe bat alokatzen dio, laborategi bat egin dezan.

Ana: Oratorioa. Oratorio bat zen, ez zara ezertaz enteratzen. Baina txabola txiki bat zen, hamabost bider sei metro, pipiak jandako egurrez egina.

Carlos: Eta alokairuan hartu zuen, zeukan guztia bahituta ...

Bera: Baina amets askoren hasiera izan zen. Toki seguru hau lortu zuenean, gazteengana korrika joan eta zien: "Poztu zaitezte! Badaukagu toki bat guretzat!! Gero elizak, tailerrak, patioak izango ditugu, jolasean, jauszika ibiltzeko, oso ondo pasatzeko!

Main: Joan Bosco berriro saltinbanki lanak egiten ...

Migel: Ni kartzelatik atera ninduen ...

Ana: Niri lana topatzen lagundu zidan. Orain soldata bat daukat ...

Ahotsak: Eta niri!! Niri ere bai!!

Carlos: Nire patroiarri lan kontratu bat sinarazi dio. Nik ere sinatu dut!

Bera: Oraingoan bai, bere ametsez kutsatu gaitu!!

Antonio: Zer egiten ari zarete?

Migel: Egun on, apaiz kalonje jaunak!

Carlos: Hemen gabilitza, eskola bat eraiki nahian. Hona hemen planoak.

Migel: Eta hau maketa bat da. Lanbide eskola. Tailer asko edukiko ditugu.

Main: Eta kiroletarako kanpo ugari. Begira, begira ...

Margarita: Eta antzokiak! Eta musika banda!

Ana: Eta Gazteen Zentroak! Izugarri jende asko izango gara!!

Migel: Joanek amets egin du armada handi bat bezala izango garela ...

Carlos: Baina bakezalea, apaiz kalonjeak, bakezko armada ...

Pista 13 .- Loco - Zorua

Antonio:

**Ikusten duzueenez, ahula dago.
Orain konponduko dugu.**

Magone:

**Gotzainak gu bioi agindu digu.
Obedituko diogu.**

Antonio:

**Diagnostikoan ez da zalantzarik.
"Paranoia tremens clerus".**

Magone:

**Guk ez dugu _ inoiz hitz gogorrik esaten.
Hitz gogorra da "zorua".**

Antonio:

**Hobe _ esatea pixka bat "joan" dela.
Agian "eskizofreniko".**

Magone:

**Bost izarreko _ hotelera daramagu.
Izena du "Psikiatriko".**

Antonio:

**Bi zaldiko gurdi honetan pasiera,
egin dezagun lehenago.**

Magone:

**Orain gurdira igo zaitez aurrena.
Eguraldi _ ederra dago!!**

Joan:

**Zuek izanik bi apaiz ospetsu,
Guztien artean famatu,
Ezin dut inola onartu,
beroiek lehenago pasatu ...**

**Joan: Begiak zabalik ametsetan,
egiten du zoro gaixoak.
Zoro baten akatsa ote da
egun hobea amestea?**

Beti _ itxaroten jarraitzea,

**besteen aldeko lanean,
lagunak, zuengan sinestea,
barrez zuekin jolasean ...
Mundutik dabilen zoroa
zuentzat izan nahiko nuke.
Maitasunezko usoak sortuz,
maitasunaren magia _ eginaz ...**

Margarita: Eta zer gertatu zen bi apaizekin?

Bera: Imajina ezazu! Sorpresa handia izan zen. Zoroetxean apaiz bat espero zuten eta bi iritsi ziren. Dena den, zoroa izan edo ez, Joani buruzko gauza harrigarriak kontatzen hasi ziren.

Main: Berak oso argi zeuzkan gauzak. Gazteez eta euren etorkizunaz txoratuta zegoen.

Migel: Eta egia al da gauzak bere eskuetan biderkatu egiten zirela?

Ana: Ogi txikiak?

Main: Hurrak?

Migel: Eta eliza handi bat eraiki zuela, poltsikoan txanpon batzuk bakarrik edukita?

Ana: Eta eskukada gaztainerkin bostehun laguni jaten eman ziela?

Margarita: Horiek mirariak al ziren?

Antonio: Mirariak ... Ferietan ikasitako trukuak!! Gaizkileen jokoak ... Bai, onartzen dut Joanek ospetsu izatea lortu duela, berari buruz hitz eginaraztea! "Eskandaluzko muntaia" egin duela esango nuke ... Bai, nabarmena da apaiz hau berezia dela. Baina, hortik "mirariak" hitz egitera, edota "santu" izendatzera? Ez ahaztu hemeretzigarren mendearen erdian geundela ... zientzialari eta aurkitzaile handien mendean: Edison, Watt, Marconi, Darwin, ... Horiek bai "mirariak" !!! Lurrinezko makina, elektrizitatea, haririk gabeko telefonia, ... Naturaz gaindiko gauzak? Bai zera!! Magia trukuak!! Esku azkarrekin eginiko jokoak!! Umeak engainatzen dituzten saltinbankien trukuak!!

Main: Gaztainak!

Guztiek: Gaztainak!

Magone: Ogiak!

Guztiek: Ogiak!

Margarita: Hurrak!

Guztiek: Hurrak!

Migel: Nik ere nahi dut!

Main: Ez hartu hainbeste!

Carlos: Baina, denontzat nahikoa daude!

Main: Ba, nik ez daukat bada.

Ana: Nik ere ez!

Besteek: Eta nik ere ez! Ezta nik ere!

Guztiek: Oh!!

Main: Eta orain arrosak aterako dira.

Antonio: Umeak bezalakoak dira. Denak berarekin doaz. Baina, ba al dakizue zergatik?
Bere sekretua aurkitu al duzue? Bere engainua? Arrosez beteriko bide lasaia eskaintzen die. Poza, festa, jaia!! Begira pixka bat zer egiten duen. Beraiekin jolas egiten du, entretenitu egiten ditu. Antzerkia, musika, txangoak, gustatzen zaiena ... Dena erraza da. "Zuek pozik egotea nahikoa da niretzat!" esaten die. Oso argi dago, ezta? Non daude sakrifizioa, gurutzea, errenuntziak, ... martiritza? Mirariak? Santua?
Esan dudana. Pozarekin ez da iraultzarik egiten. Errazegia!

Bera: 1847an beste amets bat izan zuen. Beti bezala, protagonista ni nintzen. Lurra lorez beteriko alfonbra eder bat bilakatu zen. Hormak sortu ziren, arrosez osatutako tunela. Nik esan nion: "Kendu itzazu oinetakoak, eta hasi zaitetz arrosen tunelean ibiltzen, oinutsik. Hori da zuk egin behar duzun bidea ...".

Pista 14 .- Zure arantzak bihur bitez arrosa

Joan:

***Zure desioa
uso bihur dadila.
Zure txapela
jostailua izan dadila.
Zure arantzak
bihur bitez arrosa.
Har zure eskua
izan dadin gitarra.***

Guztiek:

***Zure malkoak
izan bitez irribarre.
Ilargia hartu:
bi eguzki aurpegian.
Hartu bizitza,
bihur dadila festa.
Zure besoak,
hasi bitez hegaka.***

Mutikoa:

***Zerutik datoz arrosak!
Joanekin beti gara festan! Ooooo!***

Joan:

***Guztion jaia hasi da!
Etorri zaitzte guztiak!!***

Guztiek:

***Zure desioa
uso bihur dadila.
Zure txapela
jostailua izan dadila.
Zure arantzak
bihur bitez arrosa.
Har zure eskua
izan dadin gitarra.***

Joan:

***Arantza ugari dago!
Hankak ditut urraturik!!***

Antonio:

***Magia jolas bat ote da?
Agur, bagoaz hemendik!!***

Joan:
Inor ez dator nirekin!
Zergatik hainbeste arantza?

Berak:
Alea hiltzen bada,
sortuko da fruitua.
Gau ilunaren ondoren,
diz-diz eguzkia.
Ekipaiarik gabe,
biziago gabiltza.
Arantza mingarri _ artean
jaiotzen da _ arrosa.

Zama duzu arina,
leuna uztarria.
Bere _ ahotsa _ entzun,
berritzen dizu bihotza.
Perla bat topatzean,
salduko duzu dena.
Bateko ehun,
altxorra, bizi berria.

Bera: Etorri zaitetz hona, tonto hori! Ez al dakizu esku jokoak egiten? Nik
erakutsiko dizut bat. Jar iezazkiezu lepoan, eta jarraituko dizute.

Joan eta guztiek:
Zure malkoak
izan bitez irribarre.
Ilargia hartu:
bi eguzki aurpegian.
Hartu bizitza,
bihur dadila festa.
Zure besoak,
hasi bitez hegaka.

Zure desioa
uso bihur dadila.
Zure txapela
jostailua izan dadila.
Zure arantzak
bihur bitez arrosa.
Har zure eskua
izan dadin gitarra.

Guztiek:
Zerutik datoz arrosak!
Joanekin beti gara festan! Ooooo!
Guztion jaia hasi da!
Etorri zaitetzte guztiak!!

Bera: Eta arrosak loratu egin ziren. Arantzek emaniko minak fruitua ekarri zuen. Etorriko da egun bat, esan zion bere amak,

Margarita: “Etorriko da egun bat, non Oratorioko seme eta alabak mundu osora zabalduko diren ...”

Carlos: Eta dena biderkatu zen

Bera: Urte gutxiren buruan, Don Boscoren obrak zuhaitz handi bat ziren, eta honen adarrak mundu osora iristen ziren ...

Magone: Oratorioak

Main: Neska eta mutil gazteak onartzeko eta pozteko tokiak.

Carlos: Lanbide eskolak

Ana: Gazteen langabezia eta esplotazioari aurka egiteko

Migel: Ikastetxeak

Main: Herriaren seme-alaben kultur sustapenean aitzindari

Magone: Egunkariak

Margarita: Liburuak, aldizkariak, inprimakiak ... Gizarte komunikazioan izugarritzko aurrerapena!

Migel: Misioak

Ana: Valparaiso eta Beijin arteko bide luzeak. Munduko herri eta arraza guztiak amets baten bilduta!

Carlos: Eta antzokia, musika, festa!!

Margarita: Joan Bosco, gazteen profeta etorkizuneko mendeetarako.

Carlos: Eta hau dena, nola izan da posible?

Pista 15 .- Berak, bai, egin du dena!!

Guztiek:

Berak, bai, egin du dena!!

Hona _ hemen bere _ izena!!

Joanek eta guztiek:

Berak, bai, egin du dena!!

Bere _ izena, Maria!!

Joanek:

***Txikitan hartu ninduen,
aukeratu bere eskuan,
irribarrez begiratu,
besarkada eman zidan ...***

Bizitzako _ olatu _ artean,

bera dut nire argia,

nire ametsen zutabe,

babes, kai, egunsentia ...

Guztiek:

Berak, bai, egin du dena!!

Hona _ hemen bere _ izena!!

Joanek:

Goizeko haize freskoan,

haur txiki baten musua.

Zuk beti babesten nauzu,

zuretzat da nire Agurra.

Izen berri bat zuretzat,

asmatzen dut otoitzean

Zuk beti babesten nauzu,

Zu beti nire ondoan ...

Guztiek:

Berak, bai, egin du dena!!

Bere _ izena, Maria!!

Carlos: Eta zer egin behar du Joanek, hainbestetan kanpoan izateko?

Bera: Erregearen etxetik deitzen diote, Parisetik, Bartzelonatik, egunkarietan irteten da. Aita Santuak berak adiskidetzat eta aholkularitzat dauka!

Carlos: Eta hauek zertan ari dira?

Magone: Hiletak Errege familian! Hileta handiak Errege familian!

Bera: A, bai. Ametsa da. Joanek Ama Erregina Maria Teresaren eta Maria Adelaida Erreginaren heriotza aurreikusi zuen. Piemonteko erregek asko maite zuen Don Bosco eta beldurra ere bazion.

Carlos: Zer eskaintzen dute saltzaile horiek?

Margarita: “Le Figaro”, Frantziako egunkari garrantzitsuena. Don Boscori buruzko berriak dakartza eta horrek salmentak asko handitzen ditu.

Main: Pariseko Geografia Elkartek Don Bosco apaiza gonbidatu du, hitzaldi bat eskaintzera Patagoniari buruz. Jendea entzuteko irrikatzen dago, Don Boscoren jakintza kontuan hartuta ...

Carlos: Baina, Don Bosco inoiz egon al zen Hego Ameriketan, Patagonian?

Bera: Ez, baina ametsetan ikusi zuen.

Carlos: Zeri begira daude gotzain horiek?

Margarita: Vatikanoko kardinalak dira. Joanek sorturiko bi kongregazio erlijiosoen araudiak aztertzen ari dira, Salestarren eta Maria Laguntzailearen Alaben konstituzioak. Hirugarren aldiz errebisatzen ari dira jada, eta urduri xamar daude, gauza berritzaile asko ikusten dituztelako.

Carlos: Eta horregatik dago Don Bosco orain ...

Bera: Bai. Erroman ibiliko da. Aita Santuak berriro deitu dio.

Ana: Begira, gutun bat!! Eta niretzat da!!

Carlos: Zuretzat? Maitasunezkoa al da? Ez zenion ba zeure buruari idatziko ...

Ana: Ez, ez ... Oso gutun berezia da! Joanena da!!

Guztiek: Joanena?

Margarita: Begiratu bidaltzailea. Nondik dator?

Ana: Erromatik!

Carlos: Jakina! Ez da ilargitik etorriko. Bera Erroman baldin badago ...

Main: Seguru al zaude Joanena dela?

Ana: Bai, noski! Bere sinadura bakarrik erakutsiko dizuet.

Guztiek: Ea, erakutsi!

Guztiek: Joan Bosco

Margarita: Eta zuretzat bakarrik al da?

Ana: Oso garbi dio. Ez al dakizue irakurtzen? Begira gutunaren hasiera ...

Guztiek: Ana, ... Migel, ... Main, ... Margarita, ...

Antonio: Hauek euren onetik irtenda daude, haluzinatzen ari dira. Irakurtzen badakite, bai, eta Joanez guztiz dominatuta dauzka. Ia ia ni ere konbentzitu ninduen ... Eta zuek, noski!
Argi dago. Pedagogia guztiz aldatu da. Honela esaten da, ezta? Pedagogia. Hemeretzigarren mendean zientzia hori ez zen existitzen, baina Joanez sistema bat asmatu zuen, besteek diotenez. Ze ... berak sortuko zuen, baina bera ez da enteratu ere egin. "Sistema prebentiboa" esaten diote. Errepresiorik ez, zigor lotsagarririk ez, inor ez jo, ez blaustadarik, ez ipurdian kolperik, ... Maitasuna, konfiantza, afektua, gozotasuna, ... Maitatzea nahikoa da! Bai, oso ondo entzun duzue. Gazte koadrila hau dominatzeko maitatzea nahikoa da! Baina, zer diot koadrila? Dozenaka oratorio daude jada Italian, Frantzia, Espainian, Ameriketara, ... Gazte hauek pixka bat zuzentzeko, errespetu pixka bat ipintzeko, eta inguru guztia txikizioa bihurtu ez dadin ... eta batzuetan hitz egiten utzi diezazuten ... Nahikoa da maitatzea!!

Carlos: Isildu al zaitezke, txarlata jauna?

Magone: Irakur ezazu behingoz, ea enteratzen garen!

Batzuek: Hori, hori!!

Pista 16 .- Maitatzea ez da aski

Anak:

**Pertsona guztiok
bihotza dugu.
Hauxe _ esan nahi dizuet,
urrun egon arren.
Maitasunak dena dezake,
legeen gainerik.
Dena _ ematen diozue
lehenago maite zaituzten
orori.**

Joanek:

**Maitatzea,
ez da aski, maitatua _ izan behar da,
beti elkar gozotasunez hartuz,
eta bizitza partekatuz, ooooh!**

Ez da _ aski, ez.

**Maitasuna lepoan soka _ ederra,
biren eskuak lotu behar dira,
Maitasuna dira bi begirada,
elkarren arteko gozotasuna ... ooooh!**

Anak:

**Azken arnasa zuentzat izango da
Bizitza osoa zuei eman nahi dizuet.**

Guztiok:

**Maitasunak dena dezake,
legeen gainerik.
Dena _ ematen diozue
lehenago maite zaituzten
orori.**

Maitatzea,

**ez da aski, maitatua _ izan behar da,
beti elkar gozotasunez hartuz,
eta bizitza partekatuz, ooooh!**

Ez da _ aski, ez.

**Maitasuna lepoan soka _ ederra,
biren eskuak lotu behar dira,
Maitasuna dira bi begirada,
elkarren arteko gozotasuna ...
maitatuz ... ooooh!**

- Migel: Eta Don Bosco, noiz itzuliko da?
- Bera: Beste bidaia luze bat hasi du ...
- Carlos: Parisera? Mallorkara?
- Bera: Ez, askoz urrutirago
- Margarita: “1888ko urtarrilaren 31n, Don Bosco behin betiko sartu zen neska eta mutil gehien dagoen hirian: Zeruan.”
- Antonio: Bai. Zerua, paradisua. Berak beti festaz hitz egiten zuen, pozaz, ... Nik ez dakit zerurik ba al dagoen; ez dakit Jaungoikorik badagoen ere. Neu nor naizen ere ez dakit! Izugarritzko nahaste – borrarastea daukat. Baina badakit zuek existitzen zaretela, eta zuek ere bai. Eta badakit Don Bosco existitzen dela. Eta bizirik dagoela ... Eta nire bihotzean sartu dela, barruraino, eguzki izpi bat bezala ... Azkenean badakit zer sentitzen zuten hauek, bere ondoan ibiltzen zirenean ... Maitatuak sentitzen ziren! Bere pozak irabazi zituen! Inor ez du gazte jendeak hainbeste maitatu! Errua nuen. Agian pozaz egin daiteke iraultza bat ...
- Carlos: Eta horrela joan al da, ezer esan gabe, adio esan gabe?
- Bera: Ez. Opari bat utzi digu ... guk aurrera jarrai dezagun. Eta guztientzat ohar bat. Ez ahazteko esan dit. “Esaiezu gazteei guztien zain egon naizela Zeruan”.

16. DON BOSCO

Pista 17 .- Don Bosco

***Guztiek:
Noraezean genbiltzan,
gurekin bat e(g)in zenuen.
Bizitzan itsuak ginen,
Gure _ eskua izan zinen!!***

***Zure begirada zintzo,
beti _ irribarrez betea,
zigorrik gabeko hitzez eta,
maitasunez ...
Kaleak arriskutsuak
bihurtzean ...
Gure lagun zinen!!***

**Don Bosco, itxaron, Don Bosco,
izarren gairdiko mundua,
maitasunez betea dago.**

**Nekaturik geundenean,
zure arnasa _ hartzen genuen,
bakardade egunetan,
gure aita zinen!!**

**Kaleetan bizi ginen,
kartzela zen gure _ etxea,
umezurtzoi esku zabal lagunduaz,
alaitasunezko _ etxea eman zenigun
beti gurea zinen!!**

**Don Bosco, itxaron, Don Bosco,
izarren gairdiko mundua,
maitasunez betea dago.**

**Gaueko _ iluna _ ondoren,
gure _ egunsentia zinen.
Guk guztiok badakigu,
maite gaituzula!!!**

**Gaur zurekin bat eginik,
garai berrietan zehar,
joango gara beti_aurrera,
zu bezala.
Tristezia betiko ahaztuko dugu,
gure arnasa zara!!**

**Don Bosco, itxaron, Don Bosco,
izarren gairdiko mundua,
maitasunez betea dago.**

Joan: Alaiak izan zaitezte, ongia egin, eta utzi txoriei kantatzen ...

Main: Nik eskuak irakurtzen jarraitu dut, zorte ona banatzen. Baina pozez beteta!

Antonio. Eta nik zamak jasotzen, eta behiak zaintzen, baina ... pozez beteta!

Bera: Nik nire ametsak amesten jarraituko dut, baina ... pozez beteta!

Ana: Nik zortea banatzen jarraituko dut, baina ... pozez beteta!

Magone: Eta guk bizitzari musika jartzen jarraituko dugu, baina ... pozez beteta!

(berriro kantua)

AMAIERA